



Langabezia erregistratua %1,4 jaitsi zen maiatzean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia, bi hilabetez gora egin ondoren, %1,4 murriztu zen maiatzean, urte arteko tasan.

Balio absolutuetan, langabeen kopurua 106.400era iritsi zen, hau da, 2008tik maiatz batean izandako erregistrorik txikiena. Bilakaera hori emakumeen portaera onaren ondorioa izan zen (-%1,4), gizonezkoek ia aldaketarik izan ez zuten bitartean.

Lan kontratuen kopurua %2,4 gutxitu zen

EAEn erregistratutako kontratuak
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: SEPE.

Kontratazioak %2,4 egin zuen behera maiatzean, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, kontratuen kopurua 62.000 baino gehiagokoa izan zen, beheranzko joera berretsiz. Era berean, kontratu mugagabeen kopuruak beherakada nabarmena izan zuen (-%12,3), 2023an lortutako erregistro onen ondoren, lan erreformaren bultzadaren ondorioz.



Afliazioak errekor historikoa markatu du berriro

Gizarte Segurantzako afliazioa Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Maiatzean, Gizarte Segurantzako afliazioa %1,7 handitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, serie historiko osoaren errekorra berriro markatu du, 1.019.200 afliazio erregistratu ondoren. Azken hila-beteetan bezala, emakumeek (%2,0) gizonek (%1,4) baino parte hartze handiagoa izan dute bilakaera horretan.

EAEko industria jarduera %1,4 gutxitu zen

Industria produkzioaren indizea (IPI) Urte bakoitzeko apirila. Indizea



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **EAEko industriaren ekoizpena %1,4 murriztu zen apirilean, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.** Jaitsiera horretan indizeko atal guztiek parte hartu zuten, ekipamendurako ondasunek izan ezik, urte arteko tasan %5,8ko hazkundea izan baitzuten.